

DIRU-SARRERAK

Egileak: Ane Lopez, Naia Eguia, Sofia Gomez eta Arai Biteri.

Gure proiektua turistetatik eta turistentzat, baita bertako herritarrentzat ere pentsatuta dago, beraz, gure negozio ideia beti haien beharretan oinarrituta egongo da.

Aurretik aipatutako udaletxeetara jotzea dugu helburu, hots, Plentziako, Sopelako, Getxoko eta Gornizeko udaletxeetara, alegia. Baita Bizkaiko Foru Aldundiarekin kontaktuan jartzea erabaki dugu, gure proiektua aurkeztu eta saltzeko asmoz. Hasteko, herriko udaletxeera joango gara. Udaletxeetan hizketaldiak emango ditugu gure negozio ideaiaren berri emateko, hots, Utopia zertan datzan azaltzeko. Honek **gizartean eragin positibo bat duenez, diru laguntzak emango dizkigute**, ondoren banatu egin beharko ditugunak gure 3 ideiak aurrera eramateko, hau da, takilen alokariaren, hozkailuaren eta bizikletak alokatzearen diru laguntzak herri bakoitzeko udaletxeek emango dizkigute.

Erakunde publikoek emandako diru laguntzez gain, gure diru iturriak honako ekintzetatik etorriko dira:

LAGUNTZAK:	
HOZKAILUAK	Administrazio Publikoari laguntza eskatuko diegu, baita gobernuz kanpoko hainbat erakunderi eta elkarteri.
BIDEGORRIAK	Administrazio Publikoa gure proiektuaren parte denez, negozio ideia egiteko eskainiko diegu.

BONOAK:	
BIZIKLETEN ALOKAIRUA	Eguneko bonua-----10€ Hilabeteko bonua-----50€
TAKILEN ALOKAIRUA	Eguneko bonua -----5€ Hilabeteko bonua----- 50€

DESKONTUAK:	
- MIX: Takilen+ bizikleten alokairuan	Eguneko bonua-----12€ Hilabeteko bonua-----70€

Nori zuzenduta daude? (Gure ustez, bertako herritarrentzat baina edonork erabil ditzake).	Eguneko bonua: Turistentzako eta erabili nahi duen guztiarentzat. Hilabeteko bonua: Uribe Kostako biztanleentzako.
---	---

Gauzak horrela, **hozkailu solidarioaren** ekintza hau udalak emandako diruarekin finantzatzeko litzatekeela ondorioztatu dugu. Gizartearen ongizatea bilatzen ari garelarik, udalak urtero familiarentzat bideratzen duen aurrekontutik portzentai bat gure proiektura

bideratu ahalko zuela uste dugu. Emandako diru kantitatearekin, hozkailuaren ideia zuzendutakoarekin hozkailuak erosiko ditugu, konkretuki lau. Bestalde, jendea laguntzean oinarritutako ideia denez, ez dugu irabazi iturririk aterako, hau da, hozkailu solidarioa guztiz dohinik izango da jendearentzat.

Aitzitik, gizarte jasangarria eta eroso bilatzen ari garelarik, hala nola, **bidegorriak** sortuz. Udaletxeetara jotzea dugu xede gure ideia etorkizunean gauzaratzeko. Horretarako, guk proposamenak emango dizkiegu, baina hau udaletxeek nahi izatekotan egingo duten proiektua da. Izan ere, bidegorriaren beharra sumatzen dugu, baita hobekuntza asko ekarriko dituela ere gure gizartean.

Diru sarrerak emango dizkiguten bi proiektuak **takilen eta bizikleten alokairua** dira. Goiko taulan adierazi ditugu zeintzuk diren hauen salneurriak. Bertan deskontu ezberdinak ere adierazi ditugu.

Goian aipatutako diru sarrerak lortzeaz gain, funtsezko jardueren atalean aipatutako ekintza aurrera eramatea erabaki dugu, gure proiektuari bultzada emango diogulakoan gaudelako, alde batetik, gure proiektua jendarteratzen lagunduko digu, eta honekin bat irabaziak handitzea lortuko genuke. Hilabete bakoitzeko lehen igandeetan txangoak egingo ditugu Euskal herriko kostaldeetatik zehar.

Konklusio gisa, proiektuaren **diru sarrera nagusia 11.500€** dela estimatzen dugu. Izan ere 1230 takilen alokairutik, 8650 bizikleten alokairutik eta 1620 ekintzetatik.

Aurretiaz komentatu bezala, gure proiektua udaletxeetan azalduko dugu eta haiek 5.000€-ko diru laguntzak emango dizkigute.

Bestalde, proiektua osatzen dugun 4 kideok hasierako kapital soziala jarriko dugu enpresa sortzerako unean. Hasieran bakoitzak 500€-ko diru aportazio egingo du, bazkide guztiok berdin. Gauzak horrela, Utopia enpresa sortzerako unean 2.000€ ko kapital soziala izango dugu.

Bukatzeko, esan nahi dugu gure ideiarekin ateratako zenbait irabazi gure enpresarako erreformatan edo helburuetan inbertituko ditugula.